

POTOSI ETA ARANTZAZU, ZILAR EDERREZKO KATEAN

“Arantzazuko Andre Mariaren Potosiko Kofradia” aipatzean zenbat iradokizunaldi berean! Erlijiotasunaren historia, noski, baina baita euskaldun erbeste-ratuen elkartasuna ere, Europako XVI. mendeko ekonomiaren zilar-iraulketa, lan kolonialaren antolamendu zitala, hiriaren bat-bateko goraldia eta erorikoa... Hori dena bildu zen Ameriketako hiri hartan XVI-XVII. mendeetan.

Esku artean duzun liburu honek leihatila bat irekitzen digu Potosiko mundu harrigarri hartara begiratu bat luzatzeko.

Pobrezia ekologiko handieneko lurralde batean –ez fauna, ez flora– indio amerikar batek zilar-meatzea aurkitu zuen 1545ean, lur azal-zalean, Indietako meatzerik aberatsena. Mende haren azkenetan, Potosiko meatzeak India guzti-etako zilarraren erdia berek bakarrik ematera iritsi ziren. Eta Europako ekonomia sukarrak jo zuen, zilar-olatu hura “tsunami” baten gisan gainera etorri zitzaionean.

Baina gatazkaz betea gertatu zen han bat-batean sortutako gizartea, gupidarik gabea, ankerra izateraino. Honela deskribatu izan du historialariak jaioberritako hiri hura: “Potosi meatze-hiri tipikoa zen, aberatsa eta garestia oso, bizimodu mugitukoa, indarkeria eta kalapitaz betea; kronikariek diotenez, iskanbila eta nahaspilek hautsia, lehen urteetan oldartsua eta mutiria”. Zerbait geroago ordena hobea ezarri ondoren ere (1574), interesen eta boterearen borrokek une larriak ekarri zituzten, “como la cuasiguerra entres *vascongados* por una parte y *vicuñas* (castellanos y andaluces) por otra”, idatzi da.

Hego Amerikako bide guztiak Potositik irten eta hara zihoazela zirudien, bertatik zabaltzen baitzen eguzkialde guztietara zilarra, eta basamortu hartako hiritarrei jaten eman eta janzteko nonahitik zetozen bertara janari eta jantziak: Cuzco, Cajamarca eta Quito-tik ehunak; Peru Beheretik hirina, artoa eta koka; Peruko kostaldetik, oliba, olio, arrain gazituak; Argentinako Salta eta Tukuman-etik garraio-aziendak eta okela, etab.

Hiri jendetsu hartan, zurien ondoan bazen bestelako jenderik, hirian bertan eta inguruetan 160.000 bizilagun izateraino heldu baitzen Potosi XVII.eko hasiera hartan, Madrilek 37.000 (1597) edo Londresek (“mirari bat” omen ze-

nak) 200.000ren bat zituzten garaietan: 76.000 indio eta mulato zituen hiriak orduan, eta bertako klimari inondik ere ez zegozkion beste 8.000 beltz¹.

Indioena gogorra zen, *mita* zeritzan lan-sistemaren barruan egin behar baitzuten lan. Espainolek ezarritako “lan-zerga” zela esan dezakegu, bortxatua eta norberaren esku-lanez ordaintzekoa; Koloniako ekonomian eta gomendarien mesedetan lan-esku merkea segurtatzeko modua zen *mita* hori. Legeak lege eta haien “zuhurtzia” eta guzti, azkenean indioen historiako gertaerarik tristeenetakoa bilakatu zen lan-sistema hau, eta horren lekuko izan zen Potosiko hiria, euskaldunak barne.

Kaliforniara hiru mende geroago urre bila bezala (1848), Eldorado-a agertu zela uste izanik hainbat euskaldun inguratu zen hiri berrira, oraingoan zilar bila. Gizarte gogor hartan, gure Hego Herrialdeetako etorkinek laster asmatu zuten elkarrri eta guztiek guztiei nornahiren aurrean babesa emateko erakundetresna, beren eskutik izango zutena, jaiera erlijiosoz jantzia baina elizgizonen mende utziko ez zutena, legez onetsi eta arautegi landu baten arabera gobernatua.

Hain zuzen, erakunde-tresna hori hemen aztertuko den “Arantzazuko Andre Mariaren Kofradia” izan zen.

Nazioartean eta batez ere Ameriketean hedatutako Elkarte honekiko interes berezia erakutsi dute berrikitan ikertzaileek. Oñatiko jatorrizko lehen Kofradia hura ahantzi gabe (XV. mendearen hondarretan), Luzuriagak Mexikon bere Arantzazuko lehen historia inprimatua eman zigunetik (*Paranympho Celeste*, 1685) Lizarralderen Historiaraino (1950) behin eta berriz aipatuak izan diren Kofradia amerikarrei buruz ikerkuntza berriak agertu dira orain gutxi.

Gai honetaz jardunik Kongresu berezi batean aditzera eman direnak gogorarazi behar dira lehenengo; kaleratu berria da lehenengo liburukia: *Las hue-llas de Aránzazu en América. I Congreso Internacional “Arantzazu y los Franciscanos Vascos en América”* (Eusko Ikaskuntza, 2004. O. Alvarez/I. Arrieta paratzaileak). Hor esandakoak eta M. Errasti-k “Las Cofradías americanas de la Virgen de Arantzazu” sintesi berrituan (*Arantzazu. Ikerlan eta Saiakerak*, Arantzazu, 2003) eman diguna aintzakotzat hartzekoak ditugu orain. Errastiren lan honetan lehen lekua du Potosiko Kofradia honek (690-692 or.), eta Potosiri buruzko historialariak eskutik dituela ematen dizkigu hango berriak.

Ondoko orrialde hauen bidez, beste urrats bat eman nahi du autoreak historia bere lehen urteetan ezagutzeko, eskueran genituen XVII. mendeko albis-

¹ Ik. ARTOLA, M. (1991): *Enciclopedia de Historia de España. V. Diccionario temático*. Madrid: Alianza Editorial. S. v. “Potosí, Minas de”. Ikus, gainera, “Mita” eta “Plata”.

teetatik orain XVI.era jauzi eginez. Irakurleak ikusiko duen bezala, horretarako artxiboetako paper zaharrak bilatu eta begiratu behar izan dira han bertan, eta horixe da liburu honen ekarpen nagusia, lehen iturrietan bildu ahal izan duena eskaintzea.

Orrialde hauetan Amerikako euskal gizarte baten aurrean gaude: Kofradia baten bidez gainerako herritarren artean eta agintarien aurrean bere burua euskal herritar bezala definitzen zuen lagunartea hartu du Jose Migel Esnaolak aztergaitzat. Kofradiaren ondoan, tartean egon ziren gatazka odoltsuengatik ere, Ermandade honen historia ez da interesik gabea: izan ere, itxura eliztar baten azpian, zer den, zer nahi duen eta interesak non dituen dakien Anaiarte herritar batekin topo egingo dugu Potosiko Arantzazuko Andre Mariaren Kofradiaren historia hau irakurtzean. Euskal Diasporako une jakingarri bat da, noski.

Gutxien espero genuela, iturri-iturrietatik heldu zaigun Esnaolaren idazlan hau eskertzekoa da, egileak tartean zituen beste lanei edo atsedinari orduak lapurtuz burututako ikerlana baita. Seguru naiz ekarpen hau ez dela galduko, eta, liburu honetan ez ezik, laster bere lekua izango duela historialarien ondoan argitalpenetan ere, genekizkienak albiste berriz beren sorburuetan osatzen baititu.

Joseba Intxausti

Donostia, 2004-12-28